

EHU

BOTOA ALDEZ AURRETIK EMATEA

2026ko otsailaren 11tik (asteazkena) 13ra arte (ostirala). biak barne, edozein arrazoi dela medio **hauteskunde egunean. otsailak 19**, hauteskunde barrutian egoterik ez daukan hautesleak botoa alde aurretik emateko aukera izango du egun horietan. Aukera horretaz baliatuz gero, ikastegiko idazkari akademikoak botoa eman izanaren ziurtagiria emango dio hautesleari (honi erantsita dago eredua).

Hauteskundeei buruzko arautegi orokorrean jasotakoari jarraituz, ikastegiko zuzendariaren aurrean eman behar da alde aurretiko botoa; beraz, ikastegiko idazkari akademikoak edo eskumenak eskuordetuta dituen pertsonak hartuko du alde aurretik emandako botoa. Horretarako ordutegia jendaurreko arretarako dagoen ordutegi bera izango da eta argitaratuta egon beharko da lekuan lekukoa.

Botoa alde aurretik emateko jarraibideak

Botoa alde aurretik emateko, boto txartel ofiziala gutun azal ofizial itxian sartuko da, eta gutun azal itxi hori, NANaren, pasaportearen, gidatzeko baimenaren edo unibertsitateko txartelaren fotokopiarekin batera, beste gutun azal batean sartuko da (identifikazio dokumentua indarrean egon behar da). Gutun azal hori mahaiko buruari zuzenduta egongo da, kanpoaldean boto emailearen izen-abizenak eta taldea izango ditu adierazita, eta boto emaileak hegalean sinatu ondoren zinta itsasgarriaz itxiko da.

Boto emaileak hala eskatuz gero, botoa eman izanaren ziurtagiria emango zaio, honi erantsitako ereduari jarraituz egina.

Ikastegietan hauteskunde mahaiaren arabera sailkatuko dira alde aurretik emandako botoak, kasuan kasuko hauteskunde mahaiko buruari helaraziko zaizkio bozketa egunean bertan.

Behin botazioa amaituta, horrela emandako botoak boto kutxan sartuko dira, boto emailea eroldan dagoela egiaztatu ondoren. Hala ere, botoa alde aurretik eman arren hautesleak berriro eman badu botoa hauteskunde egunean, alde aurretik emandako botoa baliorik gabe geratuko da.

Hautesleak berak eman behar du alde aurretiko botoa.

DEPÓSITO DE VOTO

Desde el **miércoles 11 de febrero hasta el viernes 13 de febrero de 2026** (ambos incluidos), quien por cualquier circunstancia no pudiera estar presente en su circunscripción electoral el día **19 de febrero (día de la votación)**, podrá hacer el depósito de voto. Para ello las y los secretarios académicos de los centros, expedirán un certificado a todas aquellas personas que depositen su voto (se adjunta modelo de certificado).

El Reglamento de Régimen Electoral General establece que el depósito de voto se ejercerá ante las Direcciones de los Centros, por lo que serán los Secretarios o las Secretarías Académicas de los Centros, o personas en quienes deleguen, en el horario de atención al público de dichas secretarías quienes reciban el depósito de voto. Este horario será publicitado por los correspondientes centros.

Cómo se deposita el voto

Los votos depositados deberán ir en papeleta y sobre oficial cerrado que será introducido junto con una fotocopia del DNI, Pasaporte, Carnet de Conducir o Carnet acreditativo de miembro de la UPV/EHU en vigor en otro sobre dirigido a la Presidencia de la Mesa de la circunscripción electoral correspondiente indicando en el exterior el nombre y apellidos de la persona que emite el voto, así como, el sector electoral al que pertenece, debiendo firmar en la solapa que deberá ser precintada con cinta adhesiva.

Si las o los votantes así lo solicitaran se les entregará un recibo del depósito de voto, según el modelo que se adjunta.

Los centros clasificarán los votos depositados en función de las mesas electorales a las que van dirigidos para su entrega el mismo día de la votación a la presidencia de la mesa electoral correspondiente.

Cerrada la votación, se procederá a la introducción en la urna de los votos así emitidos previa comprobación de su inscripción en el censo. Si alguno de estos votos correspondiera a alguien que haya emitido ya su voto presencialmente no se introducirá en la urna el voto depositado.

El Depósito de voto deberá realizarse en persona por el elector o la electora.